

- Soziologo eta kazetaria, hizkuntzalaritzaren arloan ere ekarpenak egindakoa.
 - *Egin* egunkariko erredaktoreburu izan zen eta baita *Punto y Hora* aldizkariko zuzendaria ere.
- Argitaratu zituen artikulu eta liburuen artean aipagarri: *Euskara gaur* (1971), *El euskera arcaico, extensión y parentescos* (Txalaparta, 2003), *La razón vasca* (Txalaparta, 1995), *La sociedad vasca actual* (Txertoa, 1977), *Clases sociales en Euskadi* (Txertoa, 1997),

Fonología consonántica de un dialecto del euskera de Zuberoa (1976), *Antzinako euskaraz* (2004).

- Txalapartak argitaratutako Euskadi eta askatasuna entziklopedia koordinatu zuen.
- ETA Berriko militante izan zen 70eko hamarkadan. 80koan, berriz, Herri Batasunako ordezkari hautatua, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako.
- ETA eta Espainiako Gobernuaren arteko negoziaketetan ere izan zen, 1989an, Aljerren.

Jose Luis López Vázquez notizia da, Luis Nuñez ez


Azaroaren 1ean hil zen Luis Nuñez Astrain soziologo eta kazetaria.

1996-1997an ezagutu nuen Luis Nuñez. *Egin* egunkariko zuzendaritza lanak atzean utziak zituen ordurako, eta baita, beharbada, erredaktoreburu postuak eman zion sona ere. Baina han jarraitzen zuen, Aizperekina batera —Andoni Aizpeolea, *Egin*-eko beste kide mitiko bat— enpresako sustapen arloa bere gain hartuta.

Euskal Hiztegi Entziklopedikoren ardura hartu berria nuen nik, eta produktuak txukun saltzekotan zabalkunde eta sustapen berezia beharko zuelako jo nuen, hain justu, Luis Nuñezengana. Hitz gutxi behar izan genituen elkar ulertzeko eta, ondorioz, biontzat onuragarri izan zitezkeen hitzarmena bideratzeko.

Hala, Euskal Hiztegi Entziklopedikoa 32 orrialdeko ehundik gora ataletan banatu eta faszikulutan hasi ginen *Egin*-ekin batera banatzen. Jendearen harrera, dena esaten hasita, uste baino askoz hobea izan zen, milaka izan baitziren promozio luze hura osatzeko, hasieratik bukaerarainoko pazientzia hartu zutenak.

Gizon gardena eta hurbila iruditu zitzaidan Luis Nuñez. Nire aurreiritzien kontra, tratu errazekoa. Gogoan dut gure negozio honek iraun zuen bitartean —urtebete— maiz mintzatzen



Luis Nuñez.
Euskadi eta Askatasuna.
Euskal Herria y la libertad
entziklopediatik hartutako argazkia.

ginela egoera politikoaz. Garai hartan PP eta Jose María Aznar Espainiako Gobernuaren jabe zirelako, beti bazen zer aipatua gure bileren atarikoan.

Komentzimendu handiz argudiatu zidan behin, Lizarrako inprentatik bueltan gentozela, ezkerra bihurragoa dela beti, ur handiagotan sartzen dela eta konplikatu egiten dela. Aldiz, eskuinarekin, mundu osoan erakutsi duen lez praktikoagoa izaki, PSOErekin baino errazago lortzen ahal gukeela gure herriaren egoera konpontzeko urratsak ematea. Euskara sakontzeko ikastaroa egiten ari zen garai hartan, eta arreta handia ipintzen zien hitzei.

Handik gutxira, eta eskuinaren aginduz hain zuzen, *Egin* egunka-

ria eta *Egin* Irratia itxi zituzten. Hernaniko egoitza prezintatu haretzetan gelditu ziren beraz, betirako, urtetan ondutako proiektu informatiboa eta Euskal Hiztegi Entziklopedikoren azken faszikulua, etxe askotako bilduma behin betiko osatu behar zuena. Halako oroi-garriak utzi dizkigu eskuinak.

Luis Nuñez hil zen egunean, Jose Luis López Vázquez aktore espainiarraren heriotza nabarmendu zigun EITBk. Ahanztura besterik ez zuen izan 80ko hamarkadan egunkari jarraituenetakoa erredaktoreburu gisa zuzentzen aritu zena-rentzat.

Nola aldatzen diren gauzak, kamarada. ■

Joxerra Aizpuruña